

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Olo kontseilariak Aranzadi Zientzia Elkarteari hilotzak lurpetik ateratzeko duen asmoa arindu nahi duela helarazi dio

Lehenengo bilera izan da eta, haren bidez, elkartearen lana bertatik bertara ezagutzeaz gain, arlo horretan jarduteko etorkizuneko lerroak zehaztu nahi ditu

Jueves, 24 de septiembre de 2015

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo Aranzadi Zientzia Elkarteako idazkari nagusi Juantxo Agirrerekin bildu zen atzo. Nafarroako Gobernuak duen lan egiteko asmoa helarazi zion Olo desagertutako pertsonen hilotzak lurpetik ateratzeko lanak arindu daitezen, errepresio frankistaren biktimak izan zirenak.



Juantxo Aguirre eta Ana Olo, atzoko bileran.

Bilkura honek Olo kontseilariak Aranzadirekin lehen harremana izateko gogoari erantzuten dio; izan ere, elkartearen lana bertatik bertara ezagutu nahi du, eta hilotzak lehenbailehen lurpetik ateratzen hasten utziko duten jarduera-lerroak zehaztu.

Jakina denez, 2012an, Nafarroako Gobernuak [hilotzak lurpetik ateratzeko protokolo](#) bat onartu zuen Foru Komunitatean egindako era horretako prozesuei ahalik eta berme gehien emateko xedearekin; hala, Nafarroan ezingo dira hilotzak lurpetik kontrolik gabe atera ahalko.

Jarraian, 2013ko azaroaren 26an onartutako Memoria Historikoaren 33/2013 Foru Legeak Nafarroako Gobernuak protokolo hori betetzera behartzen du, eta hilotzak lurpetik ateratzeak sortutako kargu guztiak ordaintzera, honako hauenak barne: hobiak aurkitzea, hilotzak lurpetik ateratzea, gorpuzkiak laborategira eramatea, azterketa egin eta identifikatzea eta hilobia.

2000. urtetik, Aranzadi Zientzia Elkarteak ehun hobi baino gehiagotan jardun du, Memoria Historikoko hainbat elkarteren laguntzarekin. Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan lurpetik ateratako hilotz guztietan esku hartu du, baina baita Estatuko beste lurralde batzuetan ere, hobi arrunt nahiz gorpuzkiak aztertzeo prozesuetan lagunduz.

Hilotzak lurpetik ateratzeko lan-taldea medikuntza, antropologia

fisiko, arkeologo eta elkarteko historialariek osatzen dute.

Prozesua

Hilotzak lurpetik ateratzeko sustatzaileak senideak dira bereziki. Lana informatzailearekin hasten da, eta hark badaki hobia non dagoen. Eskaera egin ondoren, hainbat diziplinako profesionalak osatutako lan-taldea martxan jartzen da.

Lurra hondeatu, gorpuzkiak lurpetik atera eta laborategi batera eramaten dira; laborategi horretan, aztertu, ikertu eta identifikatu egiten dira. Azkenik, senide eta erakundeek gerrako biktimei azken omenaldi bat egiten diete.